

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Uztaro 59k bost artikulua daramatza. Ekonomia sailekoa da lehen. Alternatiba sozioekonomikoa garatzeko oinarriak eztabaidatzera dator. Bigarrena, aspaldian geldirik genukeen Hezkuntza sailean kokatu dugu. Gizarte-langintzaren jakintzarloan ikerketa zientifikoa eta jakintzaren sortze-lana zertan diren erakusten zaigu. Hirugarrenean, Kazetaritza sailekoan, euskarazko tokiko hedabideen informazio-eremu propioan dauden aurrerapenak eta berrikuntzak aipatzen zaizkigu. Laugarrena eta bosgarrena Psikologia sailetik datozkigu. Horietarik lehenak, hizkuntzaren erabilera genero-estereotipoak iraunarazteko tresna izan daitekeenetz aztertzen du. Bigarrenak, berriz, Internet bidezko ebaluazio hezitzailea lantzen du. Pasa gaitezen banaka aurkezpen landuago bat egitera.

«Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (I. atala)» artikulua abiapuntua hauxe da: teoria kapitalistak nahiz sozialistak zuten helburu nagusia, alegia, gizartearen beharrak asetzeko sistemak izatea, ez dute lortu. Gehigarri bat ere badu lanak, hots, autoalternatibaren baitan erabilgarriak diren euskal nortasunaren ezaugarriak identifikatzekoa. Eta azkenik, eboluzioaren teoria, gizabanakoaren inizatiba eta demografia eztabaidetan izandako emaitzak aurkezten dira. Eboluzioaren teoriarekin hasiz, darwinismo sozialaren argudioa ez datorrela bat errealtatearekin agertzen zaigu; izan ere, ez baitio daukan garrantzirik ematen gizakiaren egokitzeko gaitasunari. Ondorioz, besteak beste, animalia mota batzuen eta gutxiengo gizarte etnikoen desagertzea ekarri du. Eboluzioaren teoria hauek eboluzionismorantz jo baitute, hots, desarrollismora. Baina ez dira konturatzeko bizitza molekularrean gizakiongan eragiten duten aldaketak gertatzen ari direla. Irtenbide izan zitezkeen kooperatibismoa eta talde-lanean oinarritutako erakundeak, euren aldetik, teoria autogestionarioetan txertaturik ere kapitalismoaren eta sozialismoaren azpisistemak besterik ez dira. Azken alternatiba bat legoke, hots, euskal nortasunaren ikurrei jarraituz sor daitekeena, teoria bakterianoetatik hurbilago baitago. Euskal panteismoak adierazitako kosmosaren berdintasunak sistema sozioekonomikoa ere berdintasunezko zentzuan ulertzera eraman gaitzake. Batetik sexuen arteko berdintasuna eta, bestetik gizarte-berdintasuna aurkitzen baititugu foru batzuetan. Gizabanakoaren inizatibari so egiten badiogu, kapitalismoa produkzio-bideen jabetza pribatuaren alde agertzen zaigu. Aldiz, Marx eta Engels-ek elkartasuna sistema ekonomikoaren funtsezko tresnatzat aipatu zuten. Baina, elkartasuna ezarpen sozioekonomiko gisa inposatzeak indibidualtasuna kaltetu dezakeela agerian gelditu da sozialismo zentralizatuaren sisteman ikusi denez. Konponbidea, bada, elkartasunaren eta norberaren ekimenaren sustapenean oinarritzen dela ulertu behar dugu. Euskal nortasunaren ikurrei dago-kienez, egungo adibidetzat lur komunalak har daitezke. Lur komunalen erabileran norberekeriaren eta elkartasunaren arteko nahasketa dagoela ondoriozta baitaiteke. Paradoxa badirudi ere, gaur egun, Araban eta Nafarroan lur komunalen antolaketa handiagoa sumatzen dugu, nahiz eta jakin, erromanizazio-garaian lehenbiziko lur-pribatizazioak bertan gertatu zirela. Gaur, oraino, Euskal Herri osoan badaukagu lur komunalen adierazle den «sarioa», zeinetan lan komuna eta

jabetza pribatua nahasten diren. Autoalternatibak banakotasunaren eta elkartasunaren kontzeptuak onartuz bien arteko oreka bilatzen du. Demografiari buruzko gogoeta ere nahitaezkoa da. Sistema kapitalistak Malthus-en teoria darabil. Pentsakera hau genozida eta zinikoa bihur daiteke gudak, goseteak eta izurriteak kontrol positibotzat onartzen direnean. Zentralizatutako sistema sozialistetan modu egokiagoan erabili izan dira kontrol prebentiboak. Autoalternatibak arazo demografikoa konpontzeko, lehenbizi, mundu mailako bidezko birbanaketa bermatzea eskatzen du. Gero, konponbidea etor daiteke nazioarteko hezkuntza-prozesua bultzatuz eta guztientzako doako prebentzio-kontrolak ezarriz. Azkenik, bizitza naturalaren ikuspuntu indigenak borondatezko ugalketaren eta baliabide naturalen arteko harremana uztartzen ditu.

«Gizarte-langintzaren lanbideari buruzko ikerketen errebisioa» artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-langintzaren errealitate profesionalari buruzko ikerketa abiatzeko egindako miaketa bibliografiko eta dokumentalaren azterketaren emaitzak agertzera dator. Miaketa bibliografikoaren eremu geografikoa estatu espainiarra izan da. Miaturiko epea, 1985etik 2005era doana. Helburua da formazioaren eta lan-eremuaren errealitatera egokitutako ezagutza lortzea, eta titulazioa Europako goi-mailako irakaskuntzarekin parekatzeko bidean jartzea. Ikerketaren abiapuntua izan den idatzizko agirien miaketa zehatza egiteko artxiboak, idatzagiriak, estudioak, datu-baseak eta ikerketak erabili dira. Miaketa bibliografikoaren emaitzen orduan, alde batera utzi dira ikerketa-lanak izan ordez, berrikuspen bibliografikoetatik sortutako ekarpenak. Baita ikerketa-populaziotzat langileena lehenesten ez zuten ikerketak ere. Aldiz, aintzat hartu dira nolabaiteko hurbilketa enpirikoa duten lanak. Aztertutako aldagaiei dagokienez, ondoko hauek kontuan hartu izan dira: gure ikergaiari loturiko gai zehatzak; egileak; eremu geografikoa; planteamendu metodologikoa; argitaratze-urtea; argitalpen mota; luzera eta erakunde sustatzailea. Ondorioetariko bat izan da Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-langintzaz bideratu nahi den ikerketaren informazio-bilketarako galdesorta taxutzeko datuak pilatzea. Bestalde, ikerketa mota horiei dagokienez, % 17k ikergaia era global edo orokorrean jorratzen duela ikasi dugu; % 83, aldiz, azpigi zehatzak lantzerantz bideratzen da. Egileei so, % 17 erakunderen batek eginak dira, eta % 83 gizabanako jakinenak dira. Eremu geografikoari dagokionez, % 17 espainiar estatu osoan eginak dira, eta % 83 eremu geografiko zehatzagoetan. Lanen planteamendu metodologikoari so, % 61ean ikuspegi kuantitativoa erabili da, % 13an kualitativoa eta % 26an bi ikuspegiak gurutzatuta. Argitaratze-urteari erreparatuta, 1971tik 2005era bitartekoak dira. Argitalpenei so, 3 ikerketa argitaragabe eskuratu dira. % 44 aldizkari espezializatuetan argitaratu da. Gainerakoak, % 31 monografikoak; % 4 kongresuetako adierazpenak; % 4 argitalpen birtuala dutenak, eta % 4 erakunde publikoren bateko txostenak dira. Luzerari so, monografiaren batez bestekoa 195 orri da; artikulua, 15koa. Erakunde sustatzailearen berri % 61ek bakarrik ematen du.

«Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea» artikulua erakustera dator zertan diren aitzindariak izatera heldu diren euskal aldizkariak eta azken urteotan sortutako argitalpen berriak. Herririk herri sortutako euskara elkarteek abiatu ohi dituzte tokiko hedabideak. Gaur egun, berrogeitik gora tokiko aldizkari ditugu. Aldizkariez gain, irrati eta telebistak ere sortu dituzte. Lan honetarako, hamar aldizkarik osatutako lagina prestatu da. *Hitzak* eta *Herria* aldizkaria, baita web

orriak ere, azterketatik kanpo utzi dira. Zazpi ikergaldera argitu nahi izan dira. Hipotesiak dio, aurrera begira, iraun nahi badute, kalitateak bereizi behar dituela aldizkariok gainerako argitalpenetatik. Batzuen ustez, irizpide geografikoa da garrantzitsuena; beste batzuen iritziz, aldiz, ikuspuntu lokaletik begiratu behar zaie. Dinamikotasuna bistara ateratzen dute. Diru-laguntzak moteltzen ikusirik finantziatio-iturrien bila jarri dira. Maiztasunean jauzi ikaragarria eman du hainbatek. Lan honek tokiko aldizkariak hirugarren fase batean daudela egiaztatu nahi du. Aldizkariok hizkuntza-komunitatea iraultzeko lain direla ere frogatu nahi da. Metodologia: lehenengo eta behin, hamar aldizkarik osatutako lagina prestatzea izan da; ondoren, aztertzeko aukeratutako aldizkari kopurua zorizko lagin sistematikoaren arabera egin da. Informazioen kalitatea aztertzeko, De la Torre eta T ramo irakasleen metodoa erabili da oinarrian. Hizkuntza normalizaturik eta kazetaritza-eredurik izan ez duten aldizkariak dira aztertu direnak. Aukeratutako prozesuan, jatorria dago. Baina, baita ere oreka maila eta berdintasun-adierazleak, interes maila, lanketa, ikuspegia. Diru-iturriak definitzeko, aldizkarion publizitate-ratioa ere aztertu da. Maiztasunaren ondorioak, aldizkariak hilabetekariak direnean hauek lirake: informazio gutxien ematen dutenak dira, baina informazio hori landuagoa da. «Zerbitzu» eta «Iritzi» sailei ez diete tarterik handiena eskaintzen. Informazioaren kalitatean kazetarien kopurua eragin handikoa da. Langintza horretan dihardutenen erdiek bakarrik dituzte kazetaritza-ikasketak. Komunikazio-kabineteen eraginari dagokionez, hau ondorioztatu da: kazetariak berak bilatutako albisteak gero eta gutxiago agertzen dituztela tokiko hedabideek. Euren albisteek gero eta tarte handiagoa daukate. Badira politika-gairik lantzen ez dutenak. Nekez onartzen dute gizarte-gaiak politikarekin ordezkatzeko. Publizitatea eta gainerako diru-iturriak direla eta, hau da ondorioztatu dena: diru-laguntzek ez dituzte publizitatea eta prezioa ordeztu. Maiztasunak ere ez. Merkatarien publizitate-kultura bultzatu dute tokiko hedabideek. Laguntzailearen figura sortu dute. Bestelako produktuak kaleratzen hasi dira. Informazioaren kalitateari, euskara mailari eta maketazioari dagokienez, hau jakin da: giza interesen ikuspegitik aurkeztu dira eta horrela, aldizkaria mendekotasunetik babestuz, askatasuna erakusten da. Euskara maila oso landua da. Euskararen zuzentasun gramatikala gehiago zaintzen dute. Maketazioak, berriz, zenbait kasutan beherakada nabaria jasan du. Balioen ordena bat eginaz hau litzateke emaitza: hasierako zenbakiek euskara maila lehenesten dute (8,232); bigarrenik, informazioaren kalitatea zaintzen dute (7,29); eta azkenik, maketazio-arauak kontuan hartzen dituzte (6,96). Ondorioak aipatzera igaroaz: sorrera-uneko orri kopuruari eutsi diote aldizkariak; item kopuru gehiago ere jasotzen dituzte; maiztasuna areagotzean, berezko inertzian, informazio soilak genero landuak alboratzen ditu; aldizkari horietarik bat ere ez da publizitate-mantxaren % 30era heltzen; komunikazio-kabineteen eragina tokiko hedabideetaraino zabaldu da; gizarte-gaiak lehenesten jarraitzen dute; Balio Erantsiaren gaineko Kazetaritza Indizea goranzko norabidean mantentzeko ahalegina egiten dute; hizkuntza zuzena erabiltzen dute, baina ez diete *Euskaldunon Egunkariaren Estilo Liburuko* arauak lehenetsu ematen; maketazio-arauak gero eta gutxiago zaintzen dituzte; kalitatea hobetzeko, giza baliabideetan inbertitu beharko lukete. Aurrera begira egin daitezkeen oharrak aipatuko dira: oraindik aztertu ez diren produktuak ere baditugu; komunikabideen egungo egoera, nazioarteko planoan, krisialdikoa da; gainera erdaretan jadanik doako egunkarien zabalkunde itzela dago; Internet bidezko hedabideek dakartena aztertzeko dago.

«Hizkuntzaren erabilera genero-estereotipoak iraunarazteko tresna gisa: hizkuntzaren abstrakzioaren ondorioak» artikulua, hizkuntzaren erabilera estrategikoak estereotipo eta aurreiritzien alorrean ukan ditzakeen ondorioak eztabai-datzera dator. Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna justifikatzeko elementuen artean, estereotipoek rol garrantzitsua jokatzten dute. Beste talde batzuekiko estereotipoak aldatzen joan badira ere, zergatik mantentzen dira egonkor emakumeekikoak? Erantzuteko, hizkuntza-kategoriak eta ondorio kognitiboak aipatzen hasten da ikerketa-lan hau. Hizkuntza-kategorien ereduak lau hizkuntza-kategoria ezberdintzen ditu: hiru aditz-kategoria eta adjektibo-kategoria. Ondorioa nabarmena da, komunikazioan erabiltzen den abstrakzio mailak elkarrekintzaren nolakotasuna baldintzatzen du, denborarekin eta espazioarekin lotutako ezaugarriak zehaztuz. Hizkuntzaren erabilera estrategikoa talde arteko testuinguruetan aztertzean honakoa ikusten da: estereotipoarekin bat egiten duen informazioa modu abstraktuagoan deskribatzen da; aldiz, estereotipoaren aurka egiten duena era konkretuagoan deskribatzen da. Hizkuntza-soslaiaren azpiko mekanismoak ikastean beste hau ere jakiten da: deskribapen konkretuek aktorea ekintzatik bereizten dute; deskribapen abstraktuek, berriz, aktorearen ezaugarri egonkorra eta iraunkorra islatzen dute. Talde arteko gatazkak edo lehiak hizkuntzaren erabilera estrategikoa areagotzen du gainera. Genero-estereotipoak eta hizkuntza ere aztergai izan da. Dakiguna da hizkuntza eta izendatzea botere-iturriak direla. Lehen ez bezala gaur egun emakumeen aurkako diskriminazioak izen propioa du. Hori garrantzizko aurrerapausoa da. Genero-rolarekin bat egiten zuten portaerak bat egiten ez zutenak baino hizkuntza abstraktuagoan deskribatzen ziren ere. Bi ikerketa zehatz aurkezten dira ondoren. Lehenengo ikerketan, generoarekin lotutako estereotipoak irudikatzeke, taldeak kategorizatzeke dimentsioak erabili ziren oinarri gisa. Emakumeak bigarren talde mota bezala estereotipatzen dira, ez konpetenteak baina gustagarriak bezala, eta gizonak, lehenengo talde mota bezala, konpetenteak baina besteekiko ez hain amultsuak. Metodoa: 118 emakumezko ikaslek parte hartu zuten; diseinu faktoriala erabili zen; Psiko-linguistika jakintza-arloko lan gisa aurkeztu zitzairen; mendeko aldagaiak hauek izan ziren: abstrakzio maila; ebaluazioa. Emaitzak: *sentibera* baldintzan ez zen ezberdintasunik egon estereotipoaren aldeko eta estereotipoaren aurkako egoeren artean. Egoerei buruzko ebaluazioaren orduan, bariantza-analisisa egin zen. Horrela, atsegintasun dimentsioan zein gaitasun dimentsioan, emakumezko aktoreak ebaluazio hobea jaso zuen, eta espero zen estereotipoaren eragina ez zen estatistikoki esanguratsua izan. Ondorioetara igaroaz esan, emaitzek ez dutela igurikimen hizkuntza-soslai bere osotasunean baieztatzeke babesik eman. Hala ere, gaitasunean egon ziren ezberdintasunak emakumezko eta gizonezko aktoreen artean. Gaitasun handiko gizonezkoa abstraktuago deskribatu zen gaitasun handiko emakumezkoa baino. Egoerei buruzko ebaluazioari dagokionez, emakumezko estereotipo orokorra hobeto hautemango zela ez zen egiaztatu. Bigarren ikerketan genero-estereotipoak aztertzeke genero-rolak erabili ziren. Lehenengo ikerketaren hipotesiekin bat egin zuten orain bigarren honetakoeke. Emakumeak rol estereotipikoetan era positiboan ebaluatzen dira; aldiz, ezaugarri instrumentalak eskatzen diren roletan, emakumeak diskriminatuta suertatzen dira. Metodoa: Bigarren Hezkuntzako 185 ikaslez osatutako lagina; diseinu faktoriala erabili zen; ikerketa Psiko-linguistika jakintza-arloko lan bat bezala aurkeztu zitzairen parte-hartzaileei. Mendeko aldagaiak: hizkuntzaren abstrakzio maila;

estereotipikotasuna; ebaluazioa. Emaitzak: emakumezko estereotipikoa estereotipoaren aurkako emakumezkoa baino tipikago hauteman zen. Hizkuntzaren abstrakzio mailan, emakumezko aktorearen portaera estereotipikoa estereotipoaren aurkakoa baino abstraktuago deskribatu zen; gizezko aktorearen kasuan, hizkuntzaren erabileran ezberdintasunik ez zuten egin manipulaturako portaeren estereotipiaren arabera. Ebaluazioa egitean, etxeko testuinguruan estereotipoaren aurkako egoerak hobeto ebaluatu ziren, estereotipoarekin bat egiten zutenak baino. Ondorio orokorrak laburbilduz esan dezagun genero-estereotipoak hizkuntzaren erabileran islatzen direla egiaztatu zela. Espero ez zen efekturik ere aurkitu zen: testuinguruak hizkuntzaren abstrakzio mailan izan zuen eragina. Aurkeztu diren bi ikerketetan hizkuntza-soslaiarekin bat egiten duten emaitzak aurkitu ziren. Gaitasun eta atsegintasun dimentsioetan izandako ezberdintasunak direla eta, egiturazko harreman motak estereotipoen edukian duen garrantziaren adierazgarritzat hartu dira. Bestalde, erabilitako laginak hautatzeko prozedurak emaitza hauek populazio guztira hedatzeko aukera mugatzen du.

«Internet bidezko ebaluazio hezitzailea» artikuluan neurtzen da autoebaluazio interaktiboak ikasleen etekin akademikoan eta irakaskuntzaren hautematean duen eragina. Artikuluak ezinbestekotzat jotzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea kalitatezko hezkuntza-sisteman oinarritutako ezagutzaren europar eraikuntza hasteko. Baina, berehala gehitzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzeak ez duela bermatzen helburuak lortuko direnik. Kontua da biderik egokiena topatzea ikasleek autogestiorako jarrerak eta zereginak har ditzaten. Horretarako autoikaskuntza-eredu baterantz joatea aurkeztu da aterabidetzat, hots, irakaskuntzak izaera erdi-presentziala izango duen eredu baterantz. Horrekin loturik, ebaluazio hezitzailea proposatzen da. Horrela autoebaluazioa, ebaluazio hezitzailearen eta ikasleen ikaskuntza esanguratsuen funtsezko oinarrietako bat bihurtzen da. Aurreaioetan ikusi da jadanik, autoebaluazioko proba interaktiboek esker ikaskuntza hobetu egiten dela, ikasleek emaitzei buruzko atzeraelikadura jasotzen dutelako. Beraz autoebaluazioko proba interaktiboetatik abiatzea beharrezkotzat hartzen da. Erabili den programa autoegiaztapen-eraketak diseinatzeko balio duen *Hot Potatoes* da. Milaka erabiltzaile ditu ehun eta hirurogei herrialde baino gehiagotan. Sei motatako ariketa interaktiboak egin daitezke, eta web orri batean jar daitezke. Ikasleak nahi adina aldiz errepika ditzake ariketa horiek. Bi norabideko kanala dago irakaslearen eta ikaslearen artean. Autoebaluazioko proba interaktibo hauek aplikatuta ebaluazio jarraitua eskaini daiteke bloke didaktiko bakoitzean ikasturte osoan. Ikaskuntzak aktiboa eta pertsonalizatua izan behar baitu eraginkorra izateko, eta ikasleak sentitzen duen behar baten erantzuna baldin bada ikastea, ikaskuntza eraginkorragoa izango dela uste da. Ebaluazio-estrategia hori hiru printzipio pedagogikotan oinarritzen da: ebaluazioa-atzeraelikatzeko, ikaskuntza aktiboan eta ikaskuntza autonomoa erraztean. Gai bakoitzaren azalpenak amaitzean, «ezagutzaren hautematean» duten puntuazioa gaiaren hasierakoa baino altuagoa izatea espero da. Eta ziur asko ikasgaiaren jarraipen egokia egiten duten ikasleak izango dira autoebaluazioa gehien erabiltzen dutenak. Metodologia: parte-hartzaileak izendatetik hasten da. EHUko Psikologia lizentziaturako 116 ikasle izan dira. Diseinuan ikerketa ez-esperimentalak erabili zen. Mendeko aldagai garrantzitsuenak, ikaskuntza, ezagutzaren hautematea eta ikaslearen ahalegina izan

dira. *Hot Potatoes* erabiltzeari dagokionez, lau aldagai neurtu ziren. Prozedura: *Hot Potatoes* en emaitzak biltzeko zerbitzua eskatu zen Creative Technologyren Texttoys programaren bidez aurrez ordainduta. Emaitzak lau ataletan aurkezten dira. Ikasleen profila: orotarako 94 ikasleetatik % 18 gizona eta % 82 emakumezkoa ziren. Batez besteko adina 18,25 urte zen. Ikasleen % 72k adierazi zuen Interneten konektatzeko ohitura zutela Autoebaluzazio-proben erabilera: Matrikulatutako ikasle guztien % 46, zenbakietan 53, noizbait sartua da *Hot Potatoes* en. *Hot Potatoes* erabili zuten ikasleen % 22,2k erabat ados dagoela dio, eta % 44k ados. Aldagai pertzeptualen eta ikasleen ahaleginaren arteko erlazioa: Espero zitekeen bezala, hasierako ebaluazioaren puntuazioak amaierakoak baino txikiagoak izan ziren. Korrelazio esanguratsu positiboak agertu ziren amaierako hautematearen eta ikaslearen ahaleginaren artean. Eskoletara joatean bakarrik du korrelazio esanguratsua. Aldagai pertzeptualen eta autoebaluzazio-ariketen aprobetxamenduaren arteko erlazioak, etekin akademikoarekiko: Autoebaluzazio-ariketen erabileraren maiztasunak korrelazio positiboa du etekin akademikoekin. Oro har, autoebaluzazio-tresna erabili zuten ikasleen etekin akademikoa erabili ez zutenena baino altuagoa da. Hala ere, amaierako notak ez du inolako harremanik hasierako hautematearekin, ezta ikaslearen ahaleginarekin ere. Eztabaida orduan aipatzen dena: Tresna hori eskola presentzialemi laguntzeko eta osatzeko erabili da. Autoebaluzazio-probek ez lukete puntuagarriak izan behar. Ebaluzazio-probek irakasleek ikaskuntzan duten konfiantza hazten dute. *Ez gainditu* eta *nahiko* kalifikazio gehiago dago *Hot Potatoes* erabili ez dutenen artean. Baina horrek ez du esanahi, nahitaez, sistema erabiltzeak etekin akademikoa hobetzen duenik zuzenean. Autoebaluzazio interaktiboa ebaluzazio hezitzailearen zati bat denez, estrategia eraginkorra dela esan daiteke. Horrek ez du esanahi autoebaluzazio-sistemak informazio garrantzitsua ematen dionik irakasleari.